



ALEGIAN NOLA BIZI ZIREN IKUSTEKO FESTA

'Garai bateko Alegia' festa antolatu dute ekainaren 7rako; bertan parte hartzeko deia egin diete herritar orori 5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-04-17

VIIURTEA 1.678.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Omenaldia egin zieten «sakabanaketak hil zituen» eskualdeko hiru preso eta senide bati. I. GARCIA

SAKABANAKETAREN AURKAKO SALAKETA JENDETSUA

POLITIKA Etzi euskal presoen sakabanaketa politika martxan jarri zela 20 urte betetzen direla salatuz, Etxeretek deituta ekitaldiak izan ziren 4

Misio Taldeak 70.000 euro eman ditu proiektuetarako

IBARRA 49.371 euro bidali zituen taldeak iaz India, Ekuador eta Hondurasera; umeak babesteko 19.840 euro bideratu zituen 6

Bisitarien kopuruak gora egin du aurtengo Aste Santuan

TOLOSALDEA Eskualdeko herritarren eta atzeritik etorritakoen kopuruak izan du igoera, pasa den urtekoarekin alderatuz 3

Satur Eleta Lehiaketan aresoar bat eta 10 leitzar

MUSIKA Eskualdeko musikari ugariarekin, hilaren 25ean izango da finala Lekunberrin 7

Gaur hasiko da III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa Asvinenean

ADUNA 23 taldek eman dute guztira izena; 22:30ean hasiko da gaurko saioa 4

Abel Barriola sendatze bidean aurkitzen da ebakuntzaren ondoren

LEITZA Herenegun egin zioten ebakuntza; «espero bezala» irten zen 7



berabera
EHAKIUMEZKO ESKUBALOI TALDEA

AKABA BERA BERA Molly Cleba

Donostiako Bidebieta kiroldegian
Apirilak 18 • **Larunbata** • 19:00etan
◦ Garbiñe Mujika (Villabona)
◦ Felix Irazustabarrena (Alegia)

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

saridunak

Bruesa GBC MMT Estudiantes

Donostiako Illunben
Apirilak 19 • **Igandea** • 18:00etan
◦ Aritz Larreta (Amezketeta)

sarrerak Tolosako HITZAko bulegoan izango dituzue



sarrerak



Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Egia ote?

Pasa den astearen arratsaldeak Ibarako plazako parkean ematen dituen amabatek Udaletxearen kanpoan segurata bat egoten zela esan ziten. Egia ote? ibararren diruarekin ordaintzen al dute bertan eguna ezer egin gabe ematen duen tipo horren soldata? zer dela eta? beldurtuta al daude zinegotzi eta alkatea? baina zergatik? euren inkompetentzia dela eta kontu eske joaten diren bizilagunen beldur al dira? herritar bezala argibideak jaso nahiko nituzke. ea inork kaso egiten duen...

Amaia.

Azokan pintxoak banatzearen alde

Idea oso ona iruditu zait larunbatetan azokaren garaian pintxoak banatzearena. Azoka bera bizituko duela iruditzen zait eta gainera janari berezia probatzeko aukera emango du. Ez dakit azokako postuetakoek nola ikusten duten ekimena baina horrelako gauza gehiago egitea ondongo litzateke. Zorionak!

Iñigo.

Belateko aparkalekuaren inguruan

Lehengoa Tolosako denda batean erosketak egin nuen, 50 eurotik gorakoa. Horren truke Belate azokako aparkalekuan kotxea ordubetez uzteko txartela oparitu zidaten. «Konpratxoak egiteko aparkatzeko gaizki dagoenez ba behintzat baduzu non utzi», esan zidan dendakoak. Ekimen ona iruditzen zait alde batetik, egia delako Alde Zaharrean aparkatzea oso zaila dela. Baina, aldi berean, jakin

nahiko nuke zeinen ekimena den, hau da, nork bultzatu duen hau: merkatariek ala Udalak? Merkatarien aldetik normala iruditzen zait horrelako zerbaitegitea beraien bizimoduak baitago jokoan. Baina, arazoa fondokoa da, hau partxe bat baino ez da.

Xabier.

Hitza Pilota txapelketa badago aurten?

Aurten izango al da Hitza Pilota txapelketa? Eta baldin badago noiz hasiko da? Ekainan izaten da finala eta iruditzen zait beste urte batzuetan garai honetan hasia izaten dela dagoeneko. Erantzungo bazenute, eskertuko nizuke.

Xabi.

■ Kaixo Xabi. Aurten VI. Hitza Pilota Txapelketa antolatuko du Hitzak, bai. Egutegia, pilotalekuak eta behar diren gauza guztiak zehaztu bezain pronto honen berri eman go du Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak. Zuk ondo esan bezala, finala ekainean jokatzeko da, San Joan bezpera inguruan eta txapelketa maiatzan hasiko da, oraindik zehaztu beharreko egunean.

Berandu xamar...

Tolosako Udalak tontakeria ugari egin ditu azkenaldian. Nire ustez behintzat hanka sartzeko gehienak antolatutako ekintzak kanpora begira egin dituela ere izan da, marketing operazio soila egiteko. Orain, krisiaren eraginez edo, herriari begira jarri da eta bertako bazarretarak behin eta berriz baztertu eta gero hauek gorapaitzen hasi da. Ez ditu bilerak egin, baserritarrekin alegia, ez ditu behingoz euren eskaerak kontutan hartu, baina orain ez dakit zein sukaldari



etorriko da hilean behin Tolosara, azokan erosketak egin eta orain «bikainak» diren produktu hoiek Zerkaussian sukaldatuko dituzte. Ez da ekimen txarra... baña behar bada beranduegi iritxi da, eta niretzako garrantzitsuagoa da baserritarren eta bizi eredu jakin bat jarraitzen dutenen iritzia zuzenean kontutan hartzea. hau ere marketing hutsean geratuko da bestela.

Iker.

Artea kalean

Idea oso ona iruditu zitzaidan Oteizaren artelanarekin egin zutena Triangulon. Horrelako gauzak egin behar dira jendearen aurrean herritarrek ikus dezaten artea egiteko modu berri hau. Beraz, hermendik nire proposamena horrelakoak maiztasunez egin ditzaitez. Artistek kalera atera behar dute artea erakustera!

Tolosar bat.

I **Inkesta****Aste Santuko oporretan kanpora atera bazara, nora joan zara?**

- Euskal Herrian ibili naiz. % 60
- Kostaldera joan naiz. % 10
- Espainia barrualdera joan naiz. % 10
- Europako beste herrialde batean izan naiz. % 20
- Beste kontinente batean izan naiz. % 0

- Aurten etxean geratu behar izan dugu. Langabezia geratu naiz eta

orain horrelako gauzak alde batera utzi behar dira. Eta grazia asko egin dit «Krisia? Taberna behintzat beteta dago; krisia? Dendak tope zudeen...» eta horrelako komentarioek. Niri esango didate zer den hau...

- Guk kostaldera joatea erabaki genuen baina ez dugu eguraldi oso ona eduki, egia esan. Hala ere oporretan beti ondo!

- Andaluziara joan gara eta oso gustura egon gara, han peltasuna hasi da.

L **Laburrak****'Zientziaren heroiak' tailerra izango da gaur**

TOLOSA ● Gaztetxoentzat Zientziaren heroiak izeneko zientzia tailerra antolatu du Udaleko kultur sailak. Hala, gaur, 12:00etatik 13:00etara bitarte zientziarekin jolasteko aukera izango dute Haur Liburutegiam.

Zinema eskaintza zabala Tolosan eta Villabonan

KULTURA ● Asteburuan zinemazaleek ere badute aukera. Villabonan, esaterako, Gurea aretoan *El curioso caso de Benjamin Button* filma emango dute. Gaur, 22:30ean, bihar, 19:30ean eta 22:30ean, etzi, 19:30ean eta astelehenean 21:30ean. Tolosan, berriz, *Hotel para perros* haurrentzako filma izango da ikusgai gaur eta etzi 17:00etan. Halaber, *Slumdog millionaire* filma ere emango dute bihar 22:30ean, etzi 19:30ean eta 22:30ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute

TOLOSA ● Galtzaundi Euskara Taldeak heldu den maiatzaren 10ean ospatuko den Herri Urratsera joateko autobus antolatu ditu. Izena emateko Galtzaundiko egoitzara gerturatu beharko dute interesatuek, eta 11 euro ordaindu beharko dute. Iparraldeko ikastolen aldeko jaialdia joateko autobusa Tolosako tren geltokitik abiatuko da 09:00etan eta itzulera 19:00etan izango da. Informazio gehiago, www.galtzaundi.com helbidean lor daiteke.

'Teleipuina' antzezlan izango da gaur ikusgai

IBARRA ● Antzezlan gina taldeak *Teleipuina* lana aurkeztuko du gaur, Benito Izagurre kultur etxean 11:30ean Udalak Aste Santurako antolatu duen egitarauaren baitan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Bisitari ugari Aste Santuan eskualdean, «baina gastu murrizta egin dute»

Gizartea » Tolosaldeko herritarren kopuruak gorantz egin du, atzerritarren kopuruak bezala.

ERREDAKZIOA

Aste Santuko oporraldia igaro da, eta ohi bezala, zenbakiak eta balorazioak egiteko unea da Tolosaldean izan dugun bisitari kopuruaren eta motaren inguruan. Aurtengo datuek diotenaren arabera, bisitari kopuruak gora egin du: jatorriari begiratu, Tolosaldeko bisitarien kopuruak gorantz egin du, Gipuzkoako nahiz Euskal Herriko gainerako herritarren bisitak jeitsi egin dira, eta atzerrikoenak, berriz igo egin dira.

Tolosaldea Tour eskualdeko turismo bulegoko arduradunek azaldu bezala, Aste Santuan izandako bisitari kopurua, orotara, 406 izan da, 2008. urtean baino %23 gehiago, iaz 331 bisitari izan baitzuten bulegoak.

Gorakada nabarmenena Tolosaldeko bisitarien nabaritu dela azaldu dute. «Izan ere, aurtun

Iaz baino jende gehiagok bisitatu du turismo bulegoa, %23 gehiagok, hain zuzen ere

Aranburu Jauregia irekita izan dugu Mariano Arsuagaren erakusketarekin eta elementu hau izan da bertakoak gehien erakarri dituenetarikoa». Halaber, Km 0 eta Slow Food ekimenek izan duten «harrera ona» azpimarratzen dute; «etortitako sukaldariak, Federico Pacha, bertako produktuen dastaketarekin jendetza erakarri zuten Triangulo plazara».



Alde Zaharreko eta Gorrotxategi Konfiteri Museoko bisitarien kopurua mantendu egin da. I.T.

Zerbitzu batzuk, ordea, igoera nabaritu beharrean mantendu edo jeitsi ere egin dira. Tolosako Alde Zaharreko eta Gorrotxategi Konfiteri Museoko bisita gidatuen zerbitzua, esaterako, mantendu egin da. 138 pertsonak egin dituzte bisita gidatuak Aste Santu honetan, 2008an baino zerbait gutxiago, 186 izan baitziren. «Honen zergatia iaz kanpaina berezia egin zela da, Arkumearen Festa zela eta, izan ere, mahaikide guztiei gonbidatu zitzaizkien bisita horietara».

Euskal Herriko herritarren bisita gutxiago

Bestalde, Tolosaldekoen bisitek gora egin badute, Gipuzkoako nahiz Euskal Herriko gainontzeko bisitari kopuruaren jaitsiera nabarmena izan da. «Beste eskualde-

ei dagokienek, euren datuak argitaratzen dituztenean, egiaztatu ahal izango dugu ea Tolosaldean bezala herritar askok euren eskualdean geratzea erabaki duten ala ez», azaldu dute Tolosaldea Tourretik.

Jeitsiera honek eragin negatiboa izan du jatetxe askotako okupazioan, izan ere, «bezero gehienak Gipuzkoa eta Euskal Herrikoak izan ohi dira. Gainera, baieztat daitezke Tolosaldeko bisitarien egiten duten gastua jatetxeetan apurka-apurka beherantz doala orain dela hilabete batzuek geroztik».

Atzerrikoen bisitak gorantz

Hala, gure eskualdeko bisitarien kopuruak gora egin duen bezala, gehiago izan dira, pasa den urteko Aste Santuarekin alderatuta, gure-

ra etorri diren turista atzerritarrek. Hau ostatuenerreserba kopuruan nabaritu beharko litzateke, baina ez da horrela izan, okupazioak behar egin baitu, %90etik %54era, hain zuzen ere. «Kontuan izan behar da, esaterako, Pazko Astelehena ez dela jai eguna Espainiako hainbat autonomia erkidegotan, eta beraz turista askok ostatua igandean utzi zuela». Horretaz gain, okupazioaren behar handiagoa izan da pentsio eta hoteletan, nekazal turismoekin alderatuta.

Esan daitezke beraz, bisitari asko izan ditugula Aste Santuan, baina gastu murrizta egin dutela, komertzioetako arduradunek azaldu duten bezala. Gaur egun igaro dutenen turista kopurua ere baxuagoa izan da aurtun.

Jardunbide Egokien Programaren inguruan jardunaldia

Gizartea » Datorren asteartean izango da Aranburun; ostatu eta jatetxe guztiak daude gonbidatuta.

ERREDAKZIOA

Datorren asteartean, hilaren 21ean, jardunaldia antolatu dute Tolosako Aranburu jauregian, 10:00etan, Jardunbide Egokien Programaren inguruan. Ekitaldi honetara Tolosaldeko ostatu eta jatetxe guztiak daude gonbidatuta, eta bertan izango dira Olatz Ilarregi (Tolosaldea Garatzen, programaren gestio, koordinazio, sensibilizazio eta enpresei laguntzearen arduraduna), Mercedes Rodriguez (Basquetour, programaren planifikazio, koordinazio, garapen orokorra eta ebaluaketa kudeatzen ditu), Uxue Bilbao (Euskaliti, kalitatearen inguruko programen garapen operatiboaz arduratzen da), Niko Osinalde (Goitur, Goierri eskualdeko esperientzia azalduko du), Iñigo Sanchez (Urbietan jatetxea, Ataun) eta Yolanda Legarra (Ugarte nekazal turismoa, Asteasu).

Jardunbide Egokien Programaren bidez, «denden kudeaketa hobetu nahi da eta turismoaren erakargarria den gune denaren pentsamendua bultzatu nahi da, denek batera hobetzeko joateko». Astearteko jardunaldian, programa ezagutzeko eta zalantzak argitzeko aukera izango da.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. 638 94 46 04 (Irene) / 695 70 82 71 (Itsaso).

SALGAI

■ **Furgoneta.** Volkswagen Transporterra salgai. Interesatuek deitu 646 48 88 77 telefono zenbakira.

■ **Eztabaidak eta inkestak.** Sar zaitze eskualdeko egunkariaren webgunean eta eguneko albisteez gain, beste hainbat atal izango dituzu eskura, horien artean, eztabaidak eta inkestak. Eztabaiden kasuan, esaterako, emakumeenganako indarkeriaren ingurukoan har dezakezu parte. Inkestetan, berriz, zure bozka eman dezakezu Aste Santuko oporrei buruz, hau da, non izan zaren kontaktatu dezakezu. Beraz, sar zaitze gure webgunean, eta parte har ezazu atal desberdinetan:

www.tolosaldekohitza.info

Benasquera irteera Oargirekin

Mendia » Datorren ostiraletik igandera izango da irteera; GPS ikastaroa ere emango dute elkartearen hurrengo astean.

ERREDAKZIOA

Oargi Mendi Elkarteak irteera antolatu du datorren astebururako, hau da, hilaren 24tik 26ra, Ixeia-Castanesara (Benasque). Ostiraletan Tolosatik Villanovara joango dira, eta larunbatean Aguja D'Ixeia gailurra (2.835m) igoko dute. Azken egunea, igandean, Pico Castanesa (2.856m) igoko



Pico Castanesa igoko dute igandean. HITZA

dute. Aterpetxea Villanova herrian dagoen txopos izango da. Parte hartzen dutenentzat beharrezkoak dira kranpoia, kaskoa, pioleta eta arnesa eramatea elurretan enkordaturik joateko.

Elkartetik azaldu dute irteera

honetarako izena emateko beharrezkoa dela 3035 0028 1102 8114 1038 kontu korrontean 20 euroko diru sarrera aurreratzea, eta 688 698 642 telefono zenbakian edo info@oargi.org helbidean jakinaraztea.

GPS-Internet ikastaroa

Bestalde, Oargi elkartearen, datorren astelehenean larunbatera, hilaren 20tik 25era, 19:30etik 21:00etara GPS-Internet ikastaroa emango dute. GPS track edo bideak: wikiloc; bizikleta eta korrika entrenaldiak; kirol arriskutzuetan erreskatea eta momentuoroko Internet bidezko jarraipena izango dira ikastaroaren atalak.

Astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan emango dute elkartearen bertan, 19:30etik 21:00etara, eta larunbatean 08:30etik 15:00etara Urkizu-Mendikute irteera egingo dute praktika egiteko.

Izena emateko 688 698 642 telefono zenbakira deitu beharko da, edo bestela, info@oargi.org helbidera idatzi. 25 euro ordaindu beharko da parte hartzeko.

Sakabanaketaren aurkako salaketa egin dute lagun ugarik eskualdean

Politika » Etxerategen antolatuta, hainbat herritatik auto karabana egin eta Villabonan amaitu zuten ekitaldi batekin.

ERREDAKZIOA

Igandean 20 urte betetzen dira euskal presoek sakabanaketa politika martxan jarri zutela. Etxerategen politikak hori salatzen du hainbat ekitaldi antolatu zituen atzo eskualdean eta lagun ugarik erantzun zuten deialdiari. Arratsaldean zehar auto karabana antolatu zuten. Ikaztegietatik Villabonara, hainbat herri igaro ondoren.

Auto karabana Tolosako Amartzuz auzora iritsi zenean, ekitaldi batekin egin zuten: «sakabanaketak hildako» eskualdekoei omenaldia

egin zieten. Mikel Lopetegi, Mikel Zalakain eta Esteban Esteban Nieto presoek eta Leo Esteban Nieto senideari lore eskaintza egin zieten Amartzuz dagoen Esteban Nieto anaia gogoratuz landatu zuten zuhaitz batean.

Villabonan egin zuten ekitaldi nagusia. Bertan bertsolariek, musikariek, dantzariak eta txalapartariak hartu zuten parte. Gogoan izan zituzten espetxeetan hildako presoak eta errepideetan hildako senideak, batez ere eskualdekoak. Etxerategen kideek testigantza eman zuten sakabanaketak suposatzen duen «sufirimendua» inguruan eta beste behin salatu zuten sakabanaketa, «politika kriminala» deituz. Etxerategen ekitaldi nazionala antolatu du Durangon etzira eta bertara joateko deialdi ere luzatu zuten.



Tolosako Amartzuz auzoan omenaldia egin zuten «dispertsioak hildako» eskualdeko lau lagunei. I. GARCIA

MIKEL GARMENDIA CIUDAD REALERA URRUTIRATU DUTE

Mikel Garmendia preso billabonatarra Ciudad Realera (Espainia) Herrera de la Mancha espetxera eramandu dute. Espetxeratu zuten An el Realen espetxeratu zuten. Orain Euskal Herriatik 200 kilometro gehiago urrutiratu dute. Garmendia martxoaren 4ean atxilotu zuten eta inkomunikatuta izan zuten espetxeratu aurretik.



Auto ugari izan ziren karabanaren parte hartzen. I. GARCIA

III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa abian jarriko da gaur Asvinenean

Aduna » Gutzira 23 taldek eman dute izena eta gaurko kanporaketan bost lehiatuko dira 22:30ean hasiko den saioan.

ERREDAKZIOA

Asvinenean antolatutako III. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa abian jarriko da gaur. 22:30ean hasiko da emanaldia Asvinenean bertan eta gaurkoan bost talde ariko dira lehiatzen.

Gutzira 23 talde ariko dira Lehiaketan, orain arteko kopururik handiena. Gaurkoan ariko di-

ren bost taldeak hauek dira: Me cambio. Me cambio. Me cambio... taldeak *Maneras de sentir* obra emango du; Tecnico Tekniko taldeak *Hernanikoa* obrarekin; Piskolabis taldea *La Tirili* obrarekin; ...eta Karme! taldeak *Oraindik jartzeko* obrarekin; eta 3. Farola taldeak *Binaka* obrarekin. Alex Rabanal izango da artista gonbidatua.

Lehenengo kanporaketa honek bi taldek egingo dute aurrera. Bat epaimahaia aukeratu du eta bestea entzulegoak. Beste hiru kanporaketetan ere bi talde aukeratu dira. Zortzi talde horien artean bi finalaurre egingo dira eta finala ekainaren 5ean izango da.

Gazteentzako Informazioaren Europako Eguna ospatzen da gaur

Gazteria » Eskualdean bi Gazte Informazio Zerbitzu daude, horietako bat Tolosan eta bestea Villabonan.

ERREDAKZIOA

Eryica-k, Gazteentzako Informazio eta Aholkularitza Europako Agentziak, gaurko Gazteentzako Informazioaren Europako Eguna izendatu du, *Feel Free to ask!* leloarekin. Egun horrekin, gazteentzako informazio zerbitzuak ezagutzera emateaz gain, Gazte Informazioaren Europako Gutunaren zehaztutako irizpideak eta lan-ildoak gogora ekarri nahi

dira. Tolosaldean bi informazio zerbitzu daude, bat Tolosan eta bestea Villabonan. Hauen helburua informazio zerbitzu iraunkorra eskaintzea da, herriko nahiz aldameneko herrietako haur, nerabe eta gazteei.

Villabonako Gazte Informazio Zerbitzua Olaederra kiroldegia-aren aurrean dago. 943 69 44 58 da bere telefono zenbakia eta gazteria@villabona.net helbide elektronikoa. Beatriz Mena da bertako arduraduna. Tolosako Gazte Informazio Bulegoa Kultur Etxean dago. 943 67 03 83 da telefono zenbakia eta gazteria@tolosakoudala.net helbide elektronikoa. Angel Alonso da arduraduna.

Hainbat zerbitzu ematen dira

bulego hauetan: arreta pertsonalizatua (presentziala, telefonoz eta posta elektronikoz); www.gipuzkoangazte.info bloga; beka dossierak, lehiaketak, oposizioak eta enplegua; buletin elektronikoa; informazio panelak; informazio bidalketak; txartelen tramitazioa zerbitzuak erabiltzeko, deskontuak lortzeko...


Bulegoetan ematen den zerbitzuetako bat Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuek izen-ematea egitea da, Donostiara joangabe. Gazteentzako udalekuen zerrendak itxita daude dagoeneko eta datorren asteatik aurrera irekiko dira nerabeentzako zerrendak, hau da, 14 eta 17 urte bitartekoentzat.



bidali opor hauetako argazkiak!



1. Saria



Aldori landetxean 2 pertsonentzako astebururako egonaldia



2. Saria

Larrea

Larrea jatetxean bi pertsonentzako otordua

3. Saria

Gorrotxategiaren saski berezia: Txokolatzeko txapela, xaxu kaxa, teilak eta zigarrorotxoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

• **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
• **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

Udalak onartzen hasi dira UEMAren mozioa

Euskara » Altzok, Anoetako, Orexak eta Adunak Osakidetzaren lanpostu deialdiaren aurkako mozioarekin bat egin dute.

ERREDAKZIOA

UEMAk proposatuta, Adunako, Anoetako, Orexako eta Altzoko udalek Osakidetzaren azken lanpostu deialdiaren aurkako mozioa onartu dute aho batez. Izan ere, «Osakidetzak ez du bermatu eskualdeko anbulatorioetan lanean hasiko diren langile berriak tratua euskaraz emateko gai izango direnik». Tartean, familia medikuak eta erizainak daude. Hilabetea amaitu aurretik, UEMAko udal gehienetan landuko dute mozioa.

Mozioaren bidez, Udalek Osakidetzari eta EAEko hizkuntza politikaren arduradunegi gogorazazi nahi diete udalerrri euskaldunetan osasun zerbitzua ematen duten langile guztiak euskaldunak izan behar dutela, eta eskatzen diete hori bete dadin, eskura dituzten neurriak har ditzatela.

Mozioa onartzeaz gain, UEMAko udalek beste neurri batzuk ere hartu dituzte. Batetik, Osakidetzako arduradunegi gutuna bidaliko diete herri euskaldunetako euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatu dituzten, eta osasun zerbitzua euskaraz emateko neurriak har ditzaten. Bestetik, UEMAko udalen helburua mozioaren edukia ahalik eta herritar gehienengana iristea denez, mozioa jendarean irakurriko dute maiatzaren 7an, Villabonako anbulatorioaren aurrean.

«Salatzen jarraitu behar da»

Horrenbestez, UEMAko udalek dei egiten diete euskalduneri «euskaldun koherente gisa joka dezaten eta euskaldunen aurkako hizkuntza politika beren egunerokotasunean sala dezaten», erreklamazioak jarri, edo salaketak behatokia bideratuz. Salaketak behatokia bideratzeko bideak hauek dira: UEMAko udaletxeetara jotzea eta salaketa jartzea, www.euskararentelefonoa.org webgunean edo 902194332 telefono zenbakian.

Olaberriaren biharko omenaldiko egitaraua

ERREDAKZIOA

Bihar Ikaztegieta herriak Leire Olaberria pista txirrundularia omenduko du, «lortutako garai-pen guztiengatik eta Ikaztegieta herriaren izena munduan zehar zabaltzeagatik» gehienbat. Horretarako bazkari bat antolatuko dute plazan.

Baina bazkari honen aurretik,

13:30a aldera, hain zuzen ere, plazan elkartuko dira bertara hurbildu nahi duten lagun guztiak eta tri-poteoa egingo dute handik abiatuta.

14:00etan herriko dantzarien eskutik *Agurra* dantzatuko dute. Ondoren, opariak banatuko dituzte eta bazkaltzeko esertzen hasiko dira bukatzeko.

Artzain Eguneko hainbat sari Alegialdera

Gizartea » Amezketako Jon Ander Goñik eta Jose Antonio Tolosak eta Abaltzisketako Joakin Mari Ipintzak jaso zituzten.

ERREDAKZIOA

Ordiziako herenegungo Artzain Egunean Tolosaldeko hainbat abeltzainek hartu zuten parte eta sari batzuk ere eskuratu dituzte. Zehazki, Abaltzisketako eta Amezketako artzainek lortu dituzte aharien hainbat garaikur.

Aharien XI. lehiaketa morfologikoan eta mutur gorrien baitan, arkume aharien bigarren saria Amezketako Jose Antonio Tolosak eraman zuen. Bildots aharietan (urte bat eta bi urte bitartekoak direnak), Jon Ander Goñi amezketarrak lehen saria lortu zuen, eta bigarrena, berriz, Abaltzisketako Joakin Maria Ipintzak.

Ahari zaharren sarien artean, beste behin Jon Ander Goñik eskuratu zuen sari bat, kasu honetan bigarrena. Beste sariak aharietako gokienez, Idiazabalera, Zerainera eta Beizamara joan ziren.

'Garai bateko Alegia' festa antolatuko dute, datorren ekainaren 7rako

Alegia » Herritarrek bertan parte hartzeko oraindik aukera dute; garai bateko arropa janzteari garrantzia eman diote.

ERREDAKZIOA

Ekainaren 7an Alegia *Garai bateko Alegian* bihurtuko da. Orain urte batzuk alegiar asko nekazariak ziren, jada desagertutako fabrikak ere baziren: zintzarri, garagardo edo paper fabrikak, bolatokiak... Argazki zaharrei esker edo ahoz aho jasotakoak dira aspaldiko garaietara bueltatzeko bideak.

Kultur Batzordearen ekimenez, denboran atzera egin eta egun batez «gure aurrekoak bizi izan zituzten garaietara itzuli gora. Orduko lanbideak eta eginkizunak berreskuratzeko ditugu. Orduan aritzen ziren moduan ariko gara». Gaur egun galtzearen dauden zenbait lan egingo dituzte besteak beste: baserrikoak, artisautza lanak...

Kalean zehar ibiliko dira historian zehar mantendu edo galdu diren hainbat pertsonaia ere. Hel-duak garai bateko lanetan, eta txikiak, orain urte batzuetako jolas-jarri nahi dituzte. Horiela gaurdaino herrian izan den musikarako tradizioak eta bertsoaritarako zaletasunak ere tokia izango dute, noski. Eguneko betebeharrak eginda festarako deia egingo da, euskal ezkontza, bazkaria eta erromeria antolatzen ari baitira egitaraua osatzeko.

Kultur Batzordeak garai bateko lanak berreskuratzeko aukera izan zitekeela pentsatu zuen eta «erabaki genuen berezia izan zitekeela lehenagoko hainbat eginkizun ikusteko aukera ematea».



Garai bateko lanak, artisautzak ikusi ahal izango dira ekainaren 7an. Irudian Mikel Amundarain saskigilea: inguruan desagertzeaz dagoen lana egiten. N.U.

Nola bizi ziren ikusteko festa

Garai batean gure herrian nola bizi ziren eta zertan aritzen zirengoratzera da helburu nagusia, baina festa giroan. Ideiei forma ematen joan dira, denak elkarrekin lotuz. Herritarren festa izango da, «zenbat eta alegiar gehiago hobe, asko baitira dagoeneko definitutako eginbeharrak eta beste horrenbeste, norberaren irudimenaren arabera landu daitezkeenak». Orain horretan ari dira: jendearekin hitz egin eta zertan lagundu daitezkeen erabakitzen.

Herritar asko dagoeneko ari dira lanak eta jantziak prestatzen. «Antzeppen honetan modu batera edo bestera parte hartu nahi duten guztiak deia egin nahi diegu animatu daitezkeen». Ekainaren 7an, beraz, parte hartu nahi dutenak oraindik garaiz dabilta. Informazio gehiago jasotzeko Kultur Etxerara jo dezake.

«Garai hartan bezala jantzita»

Garai bateko bizimodua zehatz-mehatz berreskuratzera «ia ezinezkoa litzateke. Iraganari keinu txiki

bat egin nahi diogu, herritarrek protagonista bihurtuz eta inprobisazioari bere tokia utziz».

«Gozagarrria izango da, ikusgarri eta ikasgarri, beste garai batzuk bizitzera egokitu zaigunontzat». Egunari merezi duen itxura emateko «oso garrantzitsua izango da garai hartako jantziak ateratzea. Ez du lan handiegirik eskatzen, gure aurrekoek eguneroko lanetarako jantzi soilak izaten baitzituzten»: maonezko galtzak, gona luzeak emakumeek eta alkandorak (zuriak edo beltzak) edo, nahiago bada, artzai-andre jantziak, txapela, mantala, buruko zapia, alpargatak edo abarkak eta guzti. Herritar hauek emango diote herriari nahi den giro berezi hori.

Haurrak jantzeko, berriz, soineko eta galtza motzak, alkandorak eta galtzerdi luzeak eta zapatak, adibidez. «Bakoitzak ahal duen edo ondoen iruditzen zaion moduan, baina guztiok jantzita ateratzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu». Bai festan parte hartuko dutenak eta baita ikustera gerturatuko direnak ere.

ZURRIOLA IKASTOLA I.K.E.

Barandiaran Lizeoa

Gorputz-Kirol Ekintzen Sustapena
Goi mailako heziketa zikloa

ATE IREKIAK
Apirilaren 23an 18.00etan

Zurriola Ikastola
Indianoene, 1 - 20013 Donostia
tel 943272587
zurriola@ikastola.net

70.000 euro eman ditu Misisio Taldeak proiektu desberdinetarako

Ibarra » Taldeak 49.371,89 euro bidali zituen iaz India, Ekuador eta Honduraserara; umeak babesteko, berriz, 19.840 bideratu zituen.

ERREDAKZIOA

Ibarratik Misisio Taldeak 69.211,89 euro bideratu zituen iaz munduan zehar bultzatzen dituen egitasmo desberdinak diruz laguntzeko.

Kopuru honetatik 19.840 euro 124 umeri babesa eskaintzeko eman zituzten eta 49.371,89 euro, aldiz, egitasmo ezberdinetara bideratu zituzten. Horiek horrela, guztira 124 ume babestu zituen el-

karteak 2008. urtean. Horietako 104 Indiako Mumbai, Sanand, Ghogha eta Subier herrietako umeak dira eta 20 Hondurasekoak. Guztira Indiarra 16.640 bideratu dituzte umeak babesteko eta Honduraserara, aldiz, 19.840.

Egitasmoak

Umeak babestearekin batera Ibarratik Misisio Taldeak bestelako egitasmoak egiteko dirua ere bildu zuen pasa den urtean.

Batetik Ekuadorreko Baba herriko bizi kalitatea hobetzeko egitasmo bat bultzatzeko bi diru ekarpen egin zituzten; iazko otsailan lehena, 8.360 eurokoa, eta azaroan bigarrena, 10.500 eurokoa. Eku-



Merkatu Txikian jasotako dirua egitasmo desberdinetarako da. M. SOROA

dorreko Santa Rosa herrian ere egin dute ekarpenik. Uztailan 4.511,89 euro bidali zituzten Komunitate Aurrezki Kutxa Familarrara egin ahalizateko.

Indian, aldiz, Medikuntza Naturaleko Heziketa Zentro bat egiteko bidali zuten dirua. Bi ekarpen egin zituzten Unaiizeneko herrian aipatu zentroa egiteko; azaroan 10.500 euro bidali zituzten eta abenduan beste 5.000 euro.

Bukatzeko Honduraserara, Suyapa Berria herrira, etxebizitzak eraikitzeko 10.500 euro bidali zituzten azaroan.

Guztira, hortaz, 69.211,89 euro bidali zituen iaz Ibarratik Misisio Taldeak egitasmo desberdinak bultzatzeko.

Aipatu behar da Ibarratik Misisio Taldeak ekarpen desberdinak jasotzen dituela urtean zehar ondoren diru horrekin egitasmo desberdinak egiteko.

Era berean, ekitaldi asko egin dituzte dirua biltzeko eta baita munduko zenbait herrietako egoera zein den zabaltzeko; Merkatu Txikia, azoketan parte hartu, zozketak, erakusketak, hitzaldiak, maratoiak...

Asteburuan hasiko da Herriarteko Eskuzko Txapelketa

Pilota » Ostiral honetan Albizturrek jokatu du eta larunbatean, berriz, Amezketak, Berastegik eta Anoetak.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan, hilak 19, hasiko da Gipuzkoako Herriarteko Eskuzko Txapelketa-Kutxa Saria. 42. edizioa da aurtengoa eta finala ekainaren 14an izango da. Guztira 23 herri lehiatuko dira, tartean eskualdeko Albiztur, Bidegoian, Amezketak, Berastegi, Anoeta eta Lizartza.

Aipatu behar da partidak joan eta etorrikoak izango direla, hau da, herri bakoitzak bi partida izango dituela, etxean eta kanpoan, eta partida gehien irabazten dituenak izango dela txapeladuna.



Urtero eginen dute txapelketa eta jarraitzaile ugari ditu. N. GARZIA

Lehen kanporaketak, hortaz, asteburuan izango dira eta herri bakoitzeko kadete, jubenil eta senior mailako jokalariek ariko dira. Arrasaten 19:00etan Arrasate eta Albiztur ariko dira eta bi partidetatik —etxean eta kanpoan— irabazten duenak Ataunen kontra ariko da. Albizturreko kadete jokalariek

Galarraga eta Labaka izango dira, jubenilak Lazkano eta Dorronsoro eta seniorrak Telleria eta Telletxea.

Berastegin, larunbatean

Berastegin, aldiz, larunbatean ariko dira eta Amezketak eta Berastegik jokatu dute. Irabazten duena Hernaniren kontra ariko da. Berastegitik kadeteetan Aranalde-Salbarredi, jubeniletan Etxeberria-Mugika eta A.Mujika-Zubiri ariko dira. Amezketatik, aldiz, kadeteetan Gallurralde-Goitia, jubeniletan Goitia-Sagastume eta seniorretan Haritz-Beloki izango dira jokalariek.

Larunbatean baita, baina 16:30ean, Anoeta eta Oiartzun ariko dira eta irabazten duenak Azpeitia izango du lehiakide.

Bukatzeko igandean Astigarraga eta Zestoak Astigarragan jokatu dute partida eta Lizartzaren kontra ariko dira ondoren.

Euskal Herria kaleko eta Beko-Bideko bi eraikin botako dituzte

ERREDAKZIOA

Datorren astelehenean Euskal Herria kaleko 18. zenbakiko eraikina eta Beko-Bideko 1. zenbakiko etxebizitza botatzeko lanari ekin-

go diotela jakinarazi du Udalak. Esandakoaren arabera, aspalditik hutsik dauden eraikin hauek antolamenduz kanpo daudelako botako dituzte.



Beko-Bide eta Euskal Herriko eraikinak botako dituzte astelehenean. R. CALVO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

10 leitzar eta aresoar bat Satur Eleta Lehiaketan

Musika » IV. edizioaren finalean, hilaren 25ean, eskualdeko hainbat musikari gazte elkartzuko dira Lekunberrin.

ASIERIMAZ

Banaka, binaka, hirukotea eta laukotea. 8-9, 10-12, 13-15 eta 16 urtetik gorakoak. Lau maila eta maila bakoitzean adin talde ezberdinak. Guztira? Satur Eleta IV. Musika Lehiaketaren Finala. Leitzarrei eta aresoarrei dagokienez, bederatzi mailatan 11 musikari gazte egongo dira finalean, gehienak bakarlari gixa ariko dira.

Finala: hilak 25, Muxu Aretoan

Aralar musika eskolak antolatzen duen Satur Eleta lehiaketaren finala hilaren 25ean, larunbatean, jokatuko da. Lekunberriko Muxu

Aretoan 17:00etan hasiko da ikuskizuna. Finalistek aukeratutako pieza bat jo beharko dute. Antolatzailerik finala 18:30ak aldera amaituko dela aurreikusten dute.

12:00etan irakasleen antzerkia

Finalaren egunean Aralar musika eskolako irakasleek antzerki emaldia eskainiko diete eskolako gaztetxoek. Lekunberriko ikastetxean 6-7 urteko ikasleak elkartzuko dituzte, hurrengo urtean musika tresna aukeratu behar duten ikasleak, hain zuzen ere. Orain arte egindako lanaz gain, antzerki bidez ere lagundu nahi diete musika tresnaren aukeraketan.

Arratsaldean denak edo gehienak finala ikustera joango dira.

Leitzako eta Aresoko finalistak

Hilaren 25eko finalean 10 leitzar eta aresoar bat, Zuriñe Goikoe-txea, egongo dira. Hauek maila eta

talde ezberdinetan hartuko dute parte, nahiz eta gehienak bakarlari gixa irtengo diren.

F Finalistak

BAKARLARIA

Saioa Mateorena (Pianoa) 8-9 urte
Leire Erbiti (Pianoa) 8-9
Amaia Ezkurdia (Akordeioa) 10-12
Mikel Sagastibeltza (Gitarra) 10-12
Manex Moreno (Pianoa) 10-12
Oinatz Mariezkurena Balda (Perkusioa) 10-12
Beñat Altzelai (Saxofoia) 10-12
Lorea Zabaleta Caballero (Txistua) 16 urtetik gora

HIRUKOTEAK

Lorea Zabaleta (Txistua),
Miren Juanjorenena Zufiga (Txistua-Silbotea) eta Zuriñe Goikoetxea (Pianoa) 12 urtetik gora



Lau eta Erdiko Txapelketarako osatzea da Barriolaren helburua. A. CANELLADA

Barriola ebakuntzaren ondoren sendatze bidean aurkitzen da

Leitza » Aurrerako pilotariak Euskal Herrian zehar ibiliko dira asteburu honetan hainbat txapelketetan parte hartuz.

A. IMAZ

Abel Barriolaren lesioa eta Aurrerako pilotarien partidak zeresana ematen ari dira.

Barriolari herenegun egin zioten ebakuntza eta sendatze bidean aurkitzen da pilotari leitzarrajadantik.

Bestalde, Aurrerako pilotariak ehi bezala partidak jokatuko dituzte asteburu honetan.

Abel Barriolaren ebakuntza

Jesus Alfaro sendagileak gidatu zuen Abel Barriolari herenegun egindako ebakuntza. «Dena espe-
tea besterik ez dauka, izan ere, sar-
rera doain izango da.

Ostiz eta Martikorena
Xabier Ostiz ere marka berri bat jartzen saiatuko da 163 kiloko koadroekin. Bost minutuko txanda egingo du, eta lau jasoaldi egiteko asmoz kantxaratu da. Ostizek urte bat egin du harri-jasotzen. Joan zen urtarrilaren 31n 123,5 kiloko koadroa 10 aldiz bizkareratu zuen minutu eta 48 segundoan. Gazteak 22 urte ditu.

Xebaxtin Martikorenak azken erakustaldia eskainiko du.

lau erabat desegituratu zegoen arren, belauneko gainerako osagaiek ez zuten kalterik. Kartilagoak eta meniskoa egoera onean zeuden. Injerto bidez berregituratu dugu lotailua eta errehabilitazioa behar bezala egitea izango da gako», aipatu zuen Alfaro medikuak.

Itzulera epea jartzea ezinezkoa den arren, Lau eta Erdiko Txapelketarako osatuta egotea da helburua.

Aurrerako partidak

Teledonosti Txapelketako partida jokatuko du gaur Donostiako Antiguoz auzoan Jon Jaunarenak, Mendizabalen aurka.

Irurtzungo Txapelketan, bihar, Jon Lezea-Mikel Erasok jokatuko dute.

Lizarrako Txapelketan, bihar, Gil-Mitxaus bikoteak eta Gartzia-rena-Zubiriak jokatuko dituzte leitzarren partidak.

Gravn Torneoa Nafarroa ordezkatuz, Jon Jaunarena-Lanak bihar jokatuko dute Etxarrenen euren partida, Arabaren aurka.

Añorgako Txapelketan, bihar, Oian Alduntzinek eta Huartek 18:30ean jokatuko dute.

Zaramagoko Txapelketan, etzi, Jon Lezea-Ander Eskudero bikotea arituko da.

Azkenik, Irukitako Emakumeen Paleta Goma Txapelketan Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak bihar 16:00etan jokatuko dute.



Iaz Satur Eleta Lehiaketaren III. edizioa jokatu zen. Aurten bezala, finalean hainbat leitzar eta aresoar egon ziren. N. U.

Urrutiaren marka ahalegina

Leitza » Harri-jasotzaile jaialdia antolatu dute etzi Hendaiaiko Beltzeinia pilotalekuan; bertan egongo da Josetxo Urrutia.

A. IMAZ

Hendaiaiko Besta Batzordeak herrikiroljaialdia antolatu du etzi, hilaren 19an. Beltzeinia pilotalekuan, 11:30etik aurrera, Josetxo Urrutia harri-jasotzaile leitzarria marka berria jartzen ahaleginduko da.

Urrutiarekin batera Xabier Ostiz eta Xebastian Martikorena ja-

rri-jasotzaile lapurtarrak ariko dira.

Josetxo Urrutiaren saiakera

Harri-jasotzaile leitzarria marka ahalegina egingo du Hendaiaiko Beltzeinia pilotalekuan. Bi aldiz bere pisua eta arropa bat gehiegokoz zilindro zaharra bizkareratu saiatuko da; hots, 163 kiloko zilindro zaharra, bost minutuko txandan.

Urrutiak 75 kilo eta 31 urte ditu. Marka pertsonala izango da, eta homologatua, izan ere, dopin kontrola egingo baitaizoa.

Josetxo Urrutia orain dela zortzi urte hasi zen harri-jasotzen.

Etzi egingo duen marka ahalegina ikusi nahi duenak Hendaiaira joatea besterik ez dauka, izan ere, sar-
rera doain izango da.

Ostiz eta Martikorena

Xabier Ostiz ere marka berri bat jartzen saiatuko da 163 kiloko koadroekin. Bost minutuko txanda egingo du, eta lau jasoaldi egiteko asmoz kantxaratu da. Ostizek urte bat egin du harri-jasotzen. Joan zen urtarrilaren 31n 123,5 kiloko koadroa 10 aldiz bizkareratu zuen minutu eta 48 segundoan. Gazteak 22 urte ditu.

Xebaxtin Martikorenak azken erakustaldia eskainiko du.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Villabona.** Behorlegi-Auski-Ihatea-Altzurükü mendi irteera antolatuta du Aizkardi hilaren 19rako. 649 717182 zenbakian edo aizkardi@aizkardi.com helbidean eman daiteke izena.

Antzerkia

■ **Ibarra.** Antzezki zuna ginol taldeak *Telepaina* lana aurkeztuko du Kultur Etxean 11:30ean.

Erakusketa

■ **Alegia.** Jubilatuen taberna Alkiza ahizpen margolan erakusketa. Oleo teknika erabili dute eta gehienbat paisaiak jorratu dituzte.

■ **Hernialde.** Urtzi Batiz bilbotarren keramika lanen erakusketa Hernialdeko ostatuan.

■ **Tolosa.** El Roto komikilariaren *Agua tinta* erakusketa Aranburu Jauregian, Tolosa Naturaldia jardunaldien barruan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Hotel para perros* haurrentzako filma ostiralean eta igandean 17:00etan.

■ **Villabona.** Gurea aretoan *El curioso caso de Benjamin Button* filma emango dute, 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Aloñak eta Ibonek leku berberaren bi une erakutsi dituzte euren argazkian; hauek ere HITZA Argazki Lehiaketako saria irabazi dezakete: asteburua Muxikako Aldori landetxean. Zuk ere parte har ezazu!

Haizearen orrazia protagonista



DONOSTIA •

«Egun hauetan herri inguruan geratu eta bertako tokietaz gozatzen saiatu naiz. Bidaltzen dizuedan irudia Donostiako haizearen orrazean ateratakoa da», azaldu du Aloñak bere argazkia bidaltzerakoan. **ALOÑA BARANDARAIN**

DONOSTIA •

Ideia berdina izan zuen Ibonek eta berak ere Haizearen orrazia aukeratu zuen argazkia ateratzeko. Hauxe azaldu digu: «Aste santu hauetan urrutira joan gabe gertu geratu naizenez, kamararekin jolasean ibiltzeko aprobetxatu dut. Iluntzean tripodea jarri, eta minutu erdiko argazkia bota. Kolore gorriak hiriko argien isladak sortzen ditu eta zeruko lainoen mugimenduek kolore urdineko pintzeladak diruditez».

IBON AZPILIKUETA (ALEGIA)



A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

Biharko zer, eguraldi ona?

Pello Zabalaren Eguraldia beti airean liburuan

Eguraldia antzemateko sekretuak argituko dizkizu Pello Zabalak
Bizitzako liburu naturalean ikasitakoak ekarri ditu
Pello Zabalak liburu honetara



Pello Zabala
"Eguraldia beti airean" zure argazkiak probatzen. Biharko zer? Biharko zer? Naturagatik eta eguraldiagatik. Eguraldiaren eta bihurtzearen artean, zure argazkiak, zure argazkiak, zure argazkiak."/>

Babellea

kutxa

AUKERA EZAZU.
BIZI EUSKARAZ
berria